

# KOSTUEN EGITURAK

Gure pultsera ekoizterako orduan, zenbait gastu edukiko ditugu. Esate baterako, kostu finkoak. Hauetan, pultsera merkatura ateratzeko prestatuko dugun lokalaren eta honen argindarraren kostua egongo da:

Biltegiaren alokairua hilabeteko 300€ inguru kostatuko zaigu (argindarra).

Bestalde, kostu aldakorrak daude. Egiten ditugun pultseren kantitateen arabera aldatuko dira hauek, adibidez, erosi beharreko txip eta silikona kantitateak.

Hornitzaile posibleekin hitz egin ondoren, konturatu gara gure bi osagaiak (silikona eta dispositibo teknologikoa) asko erosiz gero, eskala ekonomikoak lortu ditzakegula. Honekin, prezioa aldatzen ez badugu, guretzat irabazi gehiago lortuko ditugu. Prezioa jaistea ere aukeratu dezakegu, merkeago aterako zaigulako hornitzaileei produktuak erostea, orduan, bezero gehiago lortuko genituzke.

Gainera, aplikazioa edukiko dugunez, honengatik ere ordaindu egin beharko dugu, kostua 22000€-koa izango delarik.